

A

KALAKAN. AITOR MAZO. PATXO TELLERIA. ETORKIZUNA KONTZEPTUAK. JON MAIA. EDORTA JIMENEZ. HARKAITZ CANO. UXUE ALBERDI. OIHANA BARTRA. GORKA BENITEZ. JOSU GOIKO. ESPALOIAN. JOSEBA IRAZOKI. JOSU MARTINEZ. ALBERTO SANTANA. MAIALEN LUJANBIO. AMETS ARZALLUS. METROKOA-DROKA. HUTSA. LURRA. 22M2. PIZTIAK. MARKELIÑE. KUKAI-TANTTAKA. MIKEL MARKEZ. EÑAUT ELO-RRIETA. ETXEPARE RAP. IGELAREN BANDA. MIXEL ETXEKOPAR. EH 11 KOLORE. KULTUR INDUSTRIA.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR 

UDABERRIKO EUSKAL KULTURALDIA

TIEMPO DE ORES PARA LA CULTURA VASCA

TIME OF OWERS FOR THE BASQUE CULTURE

LE TEMPS DES FLEURS DE LA CULTURE BASQUE

PROGRAMA

LORALDIA

BILBON, UDABERRIKO EUSKAL KULTURALDIA

Loraldia badator. Apirilaren 23tik 26ra Bilbon Loraldia plazaratuko da. Euskal kulturaren adierazpen guztien topaketa: musika, dantza, teatroa, literatura, bertsolaritza, arte plastikoak, bidaiak...

Loraldia festibalaren iturria Lore Jokoetan aurkitzen da. XIX. mendean erdialdean Anton Abbadia kulturagileak abian jarri zituen Iparraldean euskarari prestigioa emateko xedearekin. Loraldiak haren lekukoa hartuko eta XXI. mendean euskal kultura garaikidearen plaza ezinbestekoa sortu gura du.

Euskal kultura gaur geroan. Katea ez da eten. Loraldiak izan ginena ekarriko du, gaurko espazioan jarri eta geroari begira jarriko du. Kimuak ditugu helburu.

Bilbon da Loraldia. Munduko modernitatearen ikurra. Euskararen historian aitzindaria. Gure Euskal Hiria. Euskarak Bilboko erdigunea hartuko du eta euskal kulturari bultzada emango diogu elkarlanean oinarritzen den egitasmoa honetan.

Bilbotik Euskal Herrira eta Euskal Herritik Bilbora. Gure kultuaren adierazpen guztiak gonbidatu ditugu. Lau puntu kardinaletatik helduko dira mendebaldeko hiri honetara eta edetasuna eta hunkidura kuttunak loratuko dira.



LORALDIA

EL GRAN ENCUENTRO DE LA CULTURA VASCA DE PRIMAVERA, EN BILBAO

Llega el Tiempo de las flores. Entre el 23 y 26 de abril, en Bilbao, nace Loraldia. Un encuentro de todas las disciplinas culturales vascas: música, danza, teatro, literatura, bertsolaris, arte plásticas, viajes...

La fuente de inspiración de este festival la encontramos en los Juegos Florales. A mediados del siglo XIX Anton Abbadia pone en marcha esos Juegos Florales con el objetivo de dar prestigio al euskara. Loraldia toma su testigo y crea una imprescindible plaza de la cultura contemporánea en el siglo XXI.

La cultura vasca de hoy que mira al futuro. La transmisión no se ha roto. Loraldia bucea en lo que fuimos para traerlo a un espacio actual y lo coloca mirando al futuro. Los nuevos brotes toman nuestro horizonte.

Loraldia es en Bilbao. En la referencia de la modernidad. Pionero en la historia del euskara. Nuestra gran ciudad vasca. Queremos que el euskara y la cultura vasca tome la centralidad por medio de este proyecto basado en el trabajo cooperativo.

Desde Bilbao llegaremos a toda Euskal Herria y desde Euskal Herria vendrán a Bilbao. Hemos invitado a las diferentes manifestaciones de nuestra cultura para que desde los cuatro puntos cardinales lleguen a esta ciudad y crezcan entre las flores la belleza y las emociones inolvidables.

23AN, OSTEGUNA.

ANTON ABBADIA

ARRIAGA ANTZOKIKO FOYERREN.

19:30etan

Aitor Mazo eta Kukai Dantza & Arkaitz Miner

(Teatroa-dantza)

60 min.

Aforoa:

Sarrera: gonbidapena

Mende eta erdi ostean, Anton Abbadia badator Bilbora. Dantza eta teatroaren bidez XIX. mendeko kulturgilea berpiztuko dugu Arriagan. Hasieran, Abbadia izeneko koreografiak emango dio hasiera formatu txikiko ikuskizun honi. Jon Mayaren zuzendaritzapean Kukai taldearen koreografia txikiak Irlandan sortu zen kulturgilea ekarriko du gogora. Jarraian Aitor Mazo aktoreak Abbadiaren izena eta izana hartuko du. Gure historia ezkutua ezagutzeko tenorea. Abbadiak berak hasiera emango die Lore Joko modernuei. Loraldiaren hasiera ikuskizuna.

APIRILAREN 24AN, OSTIRALAREKIN.

BAGA BIGA HIGA

CAMPOS ANTZOKIAN

11:00etan

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez

(musika-berbaldia-ikus entzunezkoa)

Loraldia Eskolan.

90 min

Euskal Musikaren Historia kontatzen eta kantatzen duen hitzaldi musikatua da. Bi musikari handi, Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta, dira berbaldi honen gidariak. 60ko hamarkadatik gaur egun arte euskal musikaren ibilbidea transmititzen duen ikuskizuna. Ekitaldia euskal telegi, institutu eta ikastoletako ikasleentzat da.

PLAZA: kultur industria topaketa: 2 errokan 120 minututan

ZABALGUNEKO MERKATUAN

9:30ean

Kultur industriaren eragileak

(topaketa profesionala)

150 min.

- Nola landu egitasmo bat Bruselan aurkezteko? Juan Manuel Revuelta (Brusela) Europa Creativa proiektuan aditua.

- Plaza: euskal enpresen topagunea. Euskal Herriko kultur industriaren topaketa. Hausnartzeko plaza eta negozio aukera berriak aztertzekeo jardunaldia.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



▼ ANTON ABBADIA + MIXEL ETXEKOPAR + ISELAREN BANDA

REKALDE ARTE ARETOAN

19:30ean

Igelaren banda (Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Amaiur Cajaraville) eta Mixel Etxekopar (musika folk-jazz)

90 min

Anton Abaddia: Aitor Mazo

(Antzerkia-bakarrizketa)

20 min.

Alde batetik, ostegunean estreinatu zen Anton Abbadia ikuskizunaren parte baten errepikapena. Aitor Mazok Anton Abbadiaren izena eta izana berreskuratuko du eta bakarrizketa baten bidez Irlandan sortu zen euskaldun honen bizitza berpiztuko dugu.

Bestaldetik, musika. Euskal musikaren tradizioa oinarri harturik soinu garaikideak sortzen ditu musikari multzo honek. Hegoaldean, Igelaren Banda, Bixente Martinezen gitarra elektrikoaren gidaritzapean eta Iparraldean, berriz, Mixel Etxekopar, musikari berritzaile sutsua eta nekaezina. Lur usaineko doinuek jazz eta musika garaikidearekin dantza egingo dute.

▲ ITOIZ GAUA

KAFE ANTZOKIAN

22:00etan

Espaloian-Joseba Irazoki-Hutsa

(musika pop-rock)

120 min

Sarrera: 15 €

Lau teiatu kanta ederra sortu zuen taldea orain dela 27 urte desegin zen baina haren oihartzuna ez da isildu. Gaur egun arte Itoizen kantak bolo-bolo dabiltza. Gau honetan hiru talde gonbidatu ditugu gure Itoizen memoriaren mapa berreskuratzeko. Espaloian tributu-taldea da. Joseba Irazoki sekulako moldaketa berriekin abiatuko da eta Hutsa bikoteak bere egingo ditu Juan Carlos Perezek gidatzen zuen taldearen sormen lan miresgarriak.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



APIRILAREN 25AN, LARUNBATAREKIN.

▲ EUSKAL ZINEMAREN PANTAILA

EITB MULTIBOX GELAN

11:00etan

Vasconiako historia bat - Sor Lekua- Laburmetraiak

(zinema)

120 min.

Sarrera: doan.

LABURMETRAIAK:

Lanbroa. Mikel Zatarain. 5 min.

Hubert Le Blonen Azken Hegaldia. Koldo Almandoz. 10 min.

Hotzanak, for your own safety. Izibene Oñederra. 5 min.

Hamaiketakoa. Telmo Esnal. 5 min.

Zarautzen erosi nuen. Aitor Arregi. 16 min.

Zela Trovke. Asier Altuna. 13 min.

Zinemaren eremua dugu EITB Multibox gela. "Vasconiako historia bat" dokumentalaren gidoia Alberto Santanak sortu du eta EITBren ekoizpena da. Bertan euskararen historiari begiratu berri bat ematen dio. Eztabaida biztu duen dokumentala. "Sor Lekua", berriz, euskaraz errodatu zen aurreneko filma da. Josu Martinezek deskubritu zuen Parisen. Amaitzeko, laburmetraia xorta eder bat aukeratu du Iratxe Fresnedak. Gaurko euskal zinemaren kimuak dira.

▲ ZAMA ARTISTA PLASTIKO ETA BISUALEN INSTALAZIOA ETA MAPA

egun osoan zehar

Okela sormen lantegia

(arte plastikoak eta bisualak)

Sarrera: doan

OKELA sormen lantegia Bilboko San Franzisko auzoan kokatuta dago. Guar egungo arte ikertzaileak dira. Euskal Herriko artista plastiko eta bisualen mapa eratzten ari dira eta honen bidetik sarean dituzten 20 artisteren arte-lanekin instalazio bat sortuko dute Rekalde aretoan.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



▲ **ABBADIA ESPLORA (II): BURDIN ITSASADARRA**

IBAIZABAL ITSASADARREAN ZEHAR, EUSKAL HERRIA ITSASONTZIZ.

UDALETXE AURREKO PANTALANETIK ABIATUTA.

12:00etan

Edorta Jimenez

(interpretazio-ibilbidea)

90 min.

Aforoa: 70.

Sarrera: 8 e (helduak) – 5 € (12 urtetik 25 urtera) – 1 € (10 urtetik behera)

Izena ematea: Urdaibaion. 626859477. urdaibaion@urdaibaion.com

Itsasontziz abiatuko gara Bilboko bihotzetik. Ibaizabal itsasadarretik inguruko ikuspuntu berri bat eskainiz. Burdinaren historiak eraiki du Bilbo eta Edorta Jimenez idazleak gure memoria ekarriko du gogora. Burdinaren garaitik Titanoizko Bilbora historia interesgarri eta handia dago.

▲ **UNAMUNO, 1901EKO LORE JOKOETAN BERTSO BAZKARIA**

KAFE ANTZOKIAN

14:30ean

Maialen Lujanbio-Amets Arzallus

Gidoia: Lutxo Egia

Aurkezlea: Mikel Martinez

(bertsolaritza)

180 min

Sarrera. 27€ (Bazkaria barne)

Bilbo orain dela ehun urte. 1901. urtean Miguel de Unamuno idazle bilbotarrak Lore Jokoetan parte hartu zuen. Bertan hitzaldi luze eta mamitsu bat irakurri zuen. Batzuek txaloka hartu zuten, Ramiro de Maeztuk, adibidez; beste batzuk, berriz, haserretu ziren, Sabino Arana eta Resurreccion Maria de Azkue, kasu. Unamunoren hitzaldia berreskuratuko dugu eta bi bertsolarik, Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek, egingo dute berba idazle bilbotarrarekin eta orain ehun urteko hiria hizpide izango dute.

▼ **SUA IZAN NAHI: hildakoak, senideak eta maskotak**

PABELLON 6.

19:00etan

Metrokoadroka

(arte eszenikoak)

70 min.

Sarrera: 5 €

Metrokoadroka kolektiboak Su Izan Nahi antzezlanaren estreinatuko du Bilbon. Proiektu honetan oholza gainean diziplina artistiko ezberdinen arteko harremana (poesia, pintura, musika eta teatroa) ikertzen eta esperimentatzen jardun dira kolektiboko bost lagun: Idoia Beratarbide, Jabi Barandarian, Asier Sarasola, Ander Fernandez eta Oier Guillan. Memoria bezalako gai unibertsala hartu eta elementu performatiboak eta umore absurdua erabiliz teatroren bidean jarri dute.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR 

▲ **ABBADIA DANTZA**

BADOK GEROA KONTZERTUA: + 22m2 - LURRA – PIZTIAK

CAMPOS KUPULA ARETOAN

20:00ean

Etorkizuna Kontzeptuak

(Dantza)

20 min

22m2 – Lurra - Piztiak

(musika pop-rock)

120 min

Sarrera: 10€

Lapurdiko Etorkizuna Kontzerpuak dantza taldeak Jon Mayaren zuzendaritzapean Anton Abbadia izeneko koreografia taularatuko du.

Euskal musikaren kimuak biltzen dituen eremua izan nahi du Badok kontzertuak. Berria egunkariaren Badok.info egitasmoaren babespean hiru rock talde berri eramaten ditugu tauletara. 22m2 Naroa Gaintzaren esperientzia berria, hainbat berbena taldetan jo eta gero. Lurra, Iñigo Muguruzaren talde berria, rock, pop eta ska erritmoetan murgildurik. Piztiak talde ondarrutarrak, berriz, disko grabatu berria aurkeztera datoz.

▼ **KALAKAN + ON**

CAMPOS ANTZOKIAN

22:30ean

Kalakan + Xabier Zeberio & Pello Ramirez

(musika folk)

90 min

Sarrera: 15 €

Lapurditik Bilbora. Kalakan taldeak disko berria aurkeztuko du taulen gainean. Lurraren hotsa eta tradizioa gaurkotzen duen taldea. Boza eta perkusioa uztartzen dituen hirukotea. Bestaldetik Xabier Zeberio & Pello Ramirez bikoteak On egitasmoa aurkeztuko du. Musika ikerketa harrigarri honetan nyckelharpa eta soinua musika tresnak erabiltzen dituzte.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



APIRILAREN 26AN, IGANDEAREKIN.

KIXOTE

EUSKALDUNA A1 ARETOAN

11:00etan

Markeliñe

(antzerki familiarra, 6 urtetik gora)

60 min

Sarrera. 5 €

Kixoteren eleberrian oinarritutako moldaketa libre da. Hitzik gabeko antzerki familiarra. Markeliñe taldearen hiru emakumezko aktorek La Mancharen pertsonaiaren abenturak eta desbenturak irudimen handiz eszenara eramango dute.

BILBAO-BAOBIL 2115

GUGGENHEIM ENTZUNGELAN

11:30ean

Uxue Alberdi - Oihana Bartra - Gorka Benitez & David Xirgu - Josu Goiko

(literatura-bertsolaritza-jazz)

80 min

Sarrera: 5 € (Museoaren lagunak: 3 €)

Harkaitz Canok idatzi du "Bilbo-Boabil 2115" izeneko testua. Bertan ehun urte barruko Bilbo islatzen da. Zientzia fikzioa. Testuari bi bertsolarik erantzungo die. Uxue Alberdik eta Oihana Bartrak irudikatu eta hausnartuko dute gure geroaz. Josu Goikok testua irakurri eta bertsorako gaiak jarriko ditu. Eta formatu txikiko ikuskizun honen soinu banda Gorka Benitezen saxoak jarriko du, David Xirgu bateriaren laguntzaz

HAZIPENEN POZAK

GUGGENHEIMEKO PLAZAN (ABANDOIBARRAN)

13:00etan

Kukai-Tanttaka

(kale-dantza)

70 min

Kukai eta Tattanka taldeek hamarkada bat daramate elkarlanean eta honen ondorioz Hazipenen Pozak estreinatuko dute Lortaldean. Kale-dantza honen bidez atzera begira emateko aukera ematen du. Euskal dantzen unibertsoa gaurkotu duen tanderik nabarmenetakoa da. Oinak arin espazio garaikidean.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR





APIRILAREN 22AN, ASTEAZKENEAN.

+ TRIKILOREAK

Cafe Bar Bilbao (Plaza Barria)

19:30etan

Xabi Aburruzaga eta lagunok.

(musika)

50 min

Trikixaren festa txikia.

APIRILAREN 25EAN ETA 26AN, LARUNBATEAN ETA IGANDEAN.

+ ARGH!

LA FUNDICION

Larunbatean 20:00etan / igandean 19:00etan

Blanca Arrieta

(dantza garaikidea)

50 min

La Fundicion aretoa Loraldiarekin bat egiten du eta Blanca Arrietaren azken lana eskaintzen du. Blanca Arrieta nazioarteko mailako Euskal Herriko dantza-sortzaile handienetako bat da. Argh! du izen azken sor-menak. Ikerketa luze baten emaitza dugu mugimendu-lan garaikide hau.

+ LORALDIA LIBURUDENDETAN

Bilboko liburudendek euskal argitalpen berriak ikusgarri jarriko dituzte kalean eta erakusleihoetan.

+ BIDEO-POEMA LEHIAKETA

+ INSTAGRAM LEHIAKETA

Azkue Fundazioaren eskuetan. Kultura Gaur Geroan lelori jarraituz.

UDABERRIKO EUSKAL KULTURALDIA TIEMPO DE FLORES PARA LA CULTURA VASCA
TIME OF FLOWERS FOR THE BASQUE CULTURE LE TEMPS DES FLEURS DE LA CULTURE BASQUE



LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



23AN, OSTEGUNA.

19:30 ANTON ABBADIA

Aitor Mazo eta Etorbizuna. Kontzeptuak-Jon Maia

ARRIAGAKO FOYER ARETOAN.

APIRILAREN 24AN, OSTIRALAREKIN.

9:30 PLAZA : 2 errokan 120 minututan

11:00 BAGA BIGA HIGA.

Kultur industriaren eragile topaketa.
Eñaut Eiorrieta eta Mikel Markez

ZABALGUNEKO MERKATUA

CAMPOS ARETOAN

11:00 OKELA ARTE PLASTIKO ETA
BISUALEN INSTALAZIOA.

Okela kolektiboa

CAMPOS ANTZOKIAN

19:30 ANTON ABBADIA
22:00 ITOIZ GAUA.

Aitor Mazo eta Mixel Etxekopar & Igelaren Banda
Espalolain-Joseba Irazoki-Hutsa

KAFE ANTZOKIAN

APIRILAREN 25AN, LARUNBATAREKIN.

11:00 EUSKAL ZINEMAREN PANTAILA.

12:00 ABBADIA ESPLORA (II):

BURDIN ITSASADARRA.

14:30 UNAMUNO, 1901EKO LORE JOKOETAN

19:00 SUA IZAN NAHI

20:00 ANTON ABBADIA DANITZA

20:30 BADOK GEROA KONTZERTUA

20:30 KALAKAN + ETXEPARE RAP

Vasconiako historia bat- Sor Lekua- Laburmetraiak

EITB MULTIBOX

Edorta Jimenez

BILBON ZEHAR

Maialen Lujanbio-Amets Arzallus

KAFE ANTZOKIAN

Metrokoadroka

PABELLON 6

Etorbizunak Kontzeptuak

CAMPOS KUPULA ARETOAN

22m2 – Lurra - Piztiak

CAMPOS KUPULA ARETOAN

Kalakan eta Etxepare Rap

CAMPOS ANTZOKIAN

APIRILAREN 26AN, IGANDEAREKIN.

11:00 KIXOTE

11:30 BILBAO-BAOBIL 2115

Markeliñe

(Harkaitz Cano) Uxue Alberdi-

Oihana Bartra-Gorka Benitez band-Josu Goiko

Kukai-Tantitaka

EUSKALDUNA A1

GUGGENHEIM AUDITORIUMEAN

GUGGENHEIMEKO PLAZAN